

# ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

### *Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

3.615

**436/2006 ERABAKIA**, maiatzaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Domaikiako Kontzejuarekin hitzarmena izenpetzea onartzen da Arabako Foru Aldundiko Derrigorrezko Dirubilketa Agentziaren bidez kontzeju horretako eskubideak eta kredituak premiamendu bidean kobratzeko.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 8. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du udal erakundeak eta foru aldundiak lankidetzan arituko direla zergak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzean, eta horretarako dagokion hitzarmena izenpetuko dutela.

Lankidetzaren irizpide hori Arabako Foru Aldundiaren eta kontzejuen arteko harremanetan ere ezarri ahal izango da; izan ere, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen buruzko martxoaren 20ko 1/1995 Foru Arauak 39. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Toki Ogasunei buruzko Foru Arauak II. tituluan ezarritakoa kontzejuen ogasunari ere aplikatuko zaio.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak eta Domaikiako Kontzejuak lankidetzaren hitzarmena sinatu nahi dute Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziak Domaikiako Kontzejuaren kredituak eta eskubideak premiamendu bidean bil ditzan.

Kontuan hartu da Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.7 artikuluan xedatutakoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

### ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Domaikiako Kontzejuarekin hitzarmena izenpetzea onartzea, kontzeju horren kredituak eta eskubideak Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziak premiamendu bidean bil ditzan. Hitzarmena erabaki honen eranskinean dator jasota.

Bigarren.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari baimena ematea aurreko atalean aipatzen den hitzarmena eta hori betearazteko behar diren agiri guztiak sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 30a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

### *Foru Aginduak*

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

3.876

**292/2006 FORU AGINDUA**, ekainaren 6koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, zerga agenteen jarduketak eta prozedurak onartzen dira.

1992ko urtarrilaren 21ean 10/1992 Foru Agindua onartu zen. Foru agindu horren bidez, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzura zerga agenteak atxikitzen zirenean, prestaketa lanak garatzeko eta zerga garrantziko ekintzak eta egoerak egiaztatzeko helburuarekin, bai eta hitzartutako zergei dagozkien betebeharrak formalak betetzen direla sistematikoki egiaztatzeko helburuarekin ere.

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra onartzeak zerga araudi orokorra eta, bereziki, zergak ikuskatzearen arloko gaiak berritzea eta gaurkotzea dakar berarekin.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

### *Acuerdos del Consejo de Diputados*

3.615

**ACUERDO 436/2006**, del Consejo de Diputados de 30 de mayo, que aprueba la suscripción de un Convenio para la recaudación en vía apremio, a través de la Agencia Ejecutiva de esta Diputación, de los créditos y derechos correspondientes al Concejo de Domaikia.

El artículo 8, párrafo primero, de la Norma Foral 41/1989, de 19 de julio, reguladora de las Haciendas Locales, establece que las Entidades Municipales y la Diputación Foral colaborarán mediante la suscripción del oportuno Convenio, en todos los órdenes de gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos.

Este principio de colaboración, resulta también aplicable a las relaciones entre la Diputación Foral de Álava y los Concejos, dado que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 39 de la Norma Foral 1/1995, de 20 de marzo, de Concejos del Territorio Histórico de Álava, lo dispuesto en el Título II de la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales, será de aplicación a la Hacienda de los Concejos.

En base a lo anterior, la Diputación Foral de Álava y el Concejo de Domaikia, desean suscribir un Convenio de colaboración, para la recaudación en vía de apremio, a través de la Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos del Concejo de Domaikia.

Teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 8.7), de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

### ACUERDO:

Primero.- Aprobar la suscripción con el Concejo de Domaikia, del Convenio para la recaudación en vía de apremio, a través de la Agencia Ejecutiva de la Diputación Foral de Álava, de los créditos y derechos correspondientes al citado Concejo, que figura en el Anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Autorizar al Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, para la suscripción del Convenio a que se refiere el apartado anterior, así como de cuantos documentos sean necesarios para su ejecución.

Vitoria-Gasteiz, 30 de mayo de 2006.- El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

### *Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

3.876

**ORDEN FORAL 292/2006**, de 6 de junio, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, por la que se aprueban las actuaciones y procedimientos de los Agentes Tributarios.

Con fecha 21 de enero de 1992, se aprobó la Orden Foral 10/1992, por la que se asignaba a los Agentes Tributarios al Servicio de Inspección de Tributos, con el objeto de desarrollar tareas preparatorias y de verificación material de hechos y circunstancias con relevancia tributaria, así como la comprobación sistemática del cumplimiento de obligaciones formales relativas a los tributos concertados.

La aprobación de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, supone una renovación y actualización de la normativa tributaria general, y de la materia relativa a la Inspección Tributaria en particular.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorren araugintzako eduki berriak eta terminologia Ikuskatzeko Zerbitzura egokitze aldera eta zerga agenteen eginkizunen eremua zehazte aldera egiten da foru agindu hau, nahiz eta ekainaren 21eko 10/1992 Foru Aginduaren indarraldia gorde egingo den.

Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horregatik guztiagatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

#### XEDATU DUT:

**Artikulu bakarra.- Zerga agenteek egin beharreko jarduketak eta prozedurak.**

Beren eginkizunak garatzeko, zerga agenteek Ikuskatzailatza Arautegiaren 4. artikuluko b), d) eta f) idatz-zatietan xedatutako jarduketak eta prozedurak burutuko dituzte Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren barruan. Egiaztapen murriztuaren prozeduran, ez da zerga oinarrien eta zerga kuoten zeharkako balioespenaren metodoa aplikatuko.

Era berean, informazioa biltzen eta aztertzen laguntzeko lanak egingo dituzte Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 139. artikuluaen prozedurei dagokienez, bai eta Ogasun Zuzendaritzako gainerako organoentzat, zerbitzuberuak edo horrek eskuordetzen duen pertsonak xedatutakoa kontuan hartuta.

Aurrekoaz gain, zerga agenteek zerga bakoitzaren araudian jasotako magnitude, indize, modulu eta datuak sistematikoki egiaztatuko dituzte.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Urtarrilaren 21eko 10/1992 Foru Aginduak indarrean jarraitzen du.

#### AZKEN XEDAPENA

Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den eguneko jarriko da indarrean foru agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko ekainaren 6a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

#### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

3.543

**457/2006 FORU AGINDUA, maiatzaren 26koa. Honen bidez behin betiko onartzen da Iruña Okako udalerriko planeamenduko ordezkotz arauen xedapen aldaketaren espedientea, Ollávarreko SAU-02 sektoreari buruzkoa.**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2005eko urriaren 11n, Iruña Okako Udalak honakoa erabaki zuen: alde batetik, hasierako onarpena ematea planeamenduko ordezkotz arauen xedapen aldaketaren espedienteari, Ollávarreko SAU-02 sektoreari buruzkoari, eta, bestetik, espedientea hilabetez jendaurrean jartzea. Horretarako, iragarki bana jarri zen 2005eko azaroaren 16ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN (129. zk.) eta 2005eko azaroaren 2ko Diario de Noticias de Álava egunkarian.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Udalak 2006ko otsailaren 14ko bilkuran espedienteari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen, bai eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea ere, han behin betiko onar dezaten. Aldundian 2006ko martxoaren 2an sartu zen.

Hirugarrena.- Euskal Herriko Lurraldearen Antolaketa Batzordeak espedientea aztertzen zuen maiatzaren 8ko 4/2006 bilkuran, Autonomia Erkidego osorako erakundeek Arabako Lurralde Historikoari hirigintza alorreko aginpideak eskualdatzeari buruzko martxoaren 5eko 35/1985 Dekretuak eranskineko a) idatz-zatiko hirugarren puntuan araututakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.- Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak espedienteari buruzko txostena eman zuen maiatzaren 18ko 5/2006 bilkuran, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 Foru Dekretuan ezarritakoa betez.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Behin betiko onartua izateko aurkeztu den Iruña Okako ordezkotz arauen xedapen aldaketak honakoa du helburu: SAU-

Con el objeto de adaptar los nuevos contenidos normativos y terminología de la Norma Foral General Tributaria al Servicio de Inspección y precisar el ámbito de las funciones de los Agentes tributarios, se procede a la elaboración de esta Orden Foral, respetando en todo caso la vigencia de la Orden Foral 10/1992, de 21 de enero.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Inspección de Tributos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

#### DISPONGO:

**Artículo Único.- Actuaciones y procedimientos a realizar por los Agentes Tributarios.**

Para el desarrollo de sus funciones, los Agentes Tributarios realizarán, dentro del Servicio de Inspección de los Tributos, las actuaciones y procedimientos establecidos en los apartados b), d), y f) del artículo 4 del Reglamento de Inspección. En el procedimiento de comprobación restringida, no procederá la aplicación del método de estimación indirecta de bases imponibles y cuotas tributarias.

Asimismo realizarán las tareas auxiliares de recopilación y análisis de información en relación con los procedimientos del artículo 139 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, así como para los demás órganos de la Dirección de Hacienda, atendiendo a lo que disponga el Jefe del Servicio o persona en quien delegue.

Además de lo anterior, corresponde también a los Agentes Tributarios la comprobación sistemática de las magnitudes, índices, módulos y/o datos previstos en la normativa de cada tributo.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

Se mantiene la vigencia de la Orden Foral 10/1992, de 21 de enero.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 6 de junio de 2006.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

#### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

3.543

**ORDEN FORAL 457/2006, de 26 de mayo, de aprobación definitiva del expediente de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Iruña de Oca, referida al Sector SAU-02 de Ollávarre.**

#### ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 11 de octubre de 2005 el Ayuntamiento de Iruña de Oca acordó aprobar inicialmente el expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referida al sector SAU-02 de Ollávarre, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 129, de 16 de noviembre de 2005, y en el periódico Diario de Noticias de Álava, de 2 de noviembre de 2005.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no se presentó ninguna alegación. En consecuencia, el Ayuntamiento procedió, en sesión de 14 de febrero de 2006, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el día 2 de marzo de 2006.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el punto tercero del apartado a) del Anexo al Decreto 35/1985, de 5 de marzo, de transferencia de servicios de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma al Territorio Histórico de Álava en materia de Urbanismo, el expediente fue informado por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 4/2006 de 8 de mayo.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados número 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 5/2006, de 18 de mayo.

#### FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Iruña de Oca presentada para su aprobación definitiva tiene por